*Vasconia*ren ale monografiko hau Eusko Ikaskuntzak Bilbon 1996ko Urriaren 18 eta 19an antolatu zituen Jardunaldien emaitza da.

Jardunaldi horietarako deia egiterakoan, aditurik onenen eskutik Euskal Herrian Gaur Egungo Aroan izandako gerra eta liskar zibilen alderdi jakin batzuei buruzko gogoeta egitea zen gure asmoa. Bereziki, gainerakoak baino gutxiago landurik zeuden gaietan jarri nahi genuen arreta, bide batez bai historiografia tradizionalak eta bai azken hamarraldietako berriagoak ibilitako bideetatik aldentzen ginela. Batez ere, lan kopuru garrantzitsu batek gerra zibil horietako biolentziaren gaia aztertzea nahi genuen, alderdia zabalkiro egiaztatua bazen ere, haren inguruko azterketa gutxi zegoelako. Bereziki garrantzitsua iruditu zitzaigun gai honi heltzea, gaur egun euskal gizarteak planteaturik dituen kezka eta erronka handienetariko bat delako. Maiz aski gaurkoan planteatzen ari diren arazoek beren sorrera eta garapen historikoa eta iraganeko gizartean azaldu ziren modua ezagutzera bultzatzen gaituzte, ezagupen historiko horrek egungoa ezagutzeko eta ulertzeko tresna garrantzitsua izango delako uste osoan. Lan hauetan aztertzen den beste gai batek zerikusi handia du aurrekoarekin eta gaurkotasun handikoa da berau ere: bakea eta haren inguruan ageri den guztia: ze premisen arabera iritsi zen hitzarmenetara, zeintzu ziren itun horien alderdi ahulenak, zergatik huts egin zuten, zenbat izan ziren porrot horiek.

Inor ez da historialariak baino egoera hobean, Historia errepikatzen delako esaldi hori, hainbeste aldiz esana eta hain eskuztatua den esaldi hori, noraino den faltsua jakiteko. Inoiz ez da ezer errepikatzen. Baina antzekotasunak, gisa beretsuko egoerak, eboluzio berdintsuak laguntza handikoak gertatzen zaizkigu zenbait interpretazio egiteko eta zenbait gertaera ulertzeko orduan. Diogunez, ezer ez da errepikatzen, baina zenbat elementuk ematen duten konparaziorako bide, zenbat aldiz ez garen "déjà vu" iruditzen zaigunaren aurrean gertatzen, pertzepzio faltsua dela jakinik ere.

Jardunaldiak gaurko Euskal Herriko biolentziari buruzko mahainguru batez amaitu ziren. Bertan azaldu ikuspuntuek, askotarikoak bai ukituriko alderdiei dagokienez eta bai partaideen planteamenduen aniztasun politikoari dagokionez, ekarpen guztiz interesgarria moldatu zuten zenbait hurbilketaren originaltasunagatik; hori ongi islaturik geratzen da liburuaren azken partean, bertan biltzen baitira han esandakoak. Lerro hauen bidez eskerrak bihurtu nahi dizkiet eskuhartzaile guztiei lanen maila jasoagatik eta espero dut *Vasconia*ren ale hau benetako ekarpena izan dadin gure historiaren ezagutzeko eta gure Herria ulertzeko.

Lola Valverde Lamsfus
*Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako Lehendakariordea*

Este número monográfico de *Vasconia* es el resultado de las Jornadas que EI-SEV organizó en Bilbao los días 18 y 19 de octubre de 1996.

Nuestro propósito al convocarlas fue que los mejores especialistas hicieran una reflexión sobre aspectos concretos de las guerras y enfrentamientos civiles que habían tenido lugar en el País Vasco durante la época Contemporánea. Tratábamos particularmente de centrarnos en temas que habían sido menos trabajados, a la vez que de abandonar terrenos bastante trillados por la historiografía tanto tradicional como por la más renovada de las últimas décadas. Sobre todo queríamos que un número importante de contribuciones contemplara el tema de la violencia en aquellas guerras civiles, que, aunque ampliamente constatado, había sido, a nuestro juicio, escasamente analizado. Nos pareció especialmente importante abordar este tema por constituir ésta una de las mayores preocupaciones y uno de los mayores retos que tiene planteados la sociedad vasca actualmente. En no pocas ocasiones los problemas que se desarrollan en el presente nos impulsan a conocer su génesis y su desarrollo histórico, la forma en la que se manifestaron en sociedades del pasado, con la convicción de que ese conocimiento histórico servirá de importante herramienta para el conocimiento y la comprensión del presente. Otro de los temas que se analizan en estos trabajos está muy relacionado con el anterior y es también enormemente actual: la paz y todo lo que gira en torno a ella: bajo qué premisas se llegó a acuerdos, cuáles eran sus puntos más débiles, por qué fracasó, cuando fracasos hubo.

Nadie mejor situado que los historiadores para saber cuánto encierra de falso esa frase tan repetida y manoseada de que la Historia se repite. Nada se repite nunca. Pero cuántas semejanzas, situaciones similares, parecidas evoluciones, nos son de una ayuda inestimable para construir determinadas interpretaciones y para comprender algunos acontecimientos. Decimos que nada se repite, pero cuántos elementos permiten establecer comparaciones, incluso cuántas veces nos parece encontrarnos ante lo “déjà vu”, sabiendo que se trata de una falsa percepción.

Acabaron las Jornadas con una mesa redonda sobre la violencia en Euskal Herria en nuestros días, en la que los enfoques, muy diversos, tanto en lo referente a los aspectos tratados como por la pluralidad política de los planteamientos de los participantes, supusieron una aportación llena de interés por la originalidad de algunas de las aproximaciones, como queda reflejado en la reproducción de las intervenciones que ocupa la parte final del libro. Quiero desde estas líneas terminar agradeciendo a todos los participantes el interés que demostraron, felicitarles por el alto nivel de sus trabajos y desear que este número de *Vasconia* constituya una aportación al conocimiento de nuestra historia y a la comprensión de nuestro País.

Lola Valverde Lamsfus
*Vicepresidenta por Gipuzkoa de Eusko Ikaskuntza*

Ce numéro monographique de *Vasconia* est le résultat des Journées que EI-SEB organisa à Bilbao les 18 et 19 Octobre 1996.

En convoquant ces Journées, notre but était que les meilleurs spécialistes examinent des aspects concrets des guerres et affrontements civils ayant eu lieu au Pays Basque durant l'époque Contemporaine. Nous essayions surtout de nous centrer sur des thèmes moins travaillés jusqu'à présent, et dans le même temps d'abandonner des sujets rebattus par l'historiographie aussi bien traditionnelle que par la plus actualisée de ces dernières décennies. Nous désirions surtout qu'un nombre important de contributions traite du thème de la violence pendant ces guerres civiles, qui, bien que largement constaté, avait été, à notre avis, à peine analysé. Il nous a paru spécialement important d'aborder ce sujet, car c'est l'une des plus grandes préoccupations et l'un des plus grands défis lancés à la société basque actuellement. Souvent, les problèmes développés actuellement nous poussent à connaître leur origine et leur développement historique, de quelle façon ils se manifestèrent au sein des sociétés du passé, avec la conviction que cette connaissance historique sera un outil important pour la connaissance et la compréhension du présent. Un autre des thèmes analysés dans ces travaux est très en rapport avec le précédent et est également très actuel: la paix et tout ce qui tourne autour: sous quelles prémisses ont eu lieu les accords, quels étaient leurs points les plus faibles, pourquoi ils ont échoué, combien il y eut d'échecs.

Personne n'est mieux placé que les historiens pour savoir combien la phrase maintes fois rebattue "l'Histoire se répète" est fausse. Rien ne se répète jamais. Mais combien de ressemblances, de situations similaires, d'évolutions semblables, nous sont d'une aide inestimable pour construire des interprétations déterminées et pour comprendre certains événements. Nous disons que rien ne se répète, mais combien d'éléments permettent d'établir des comparaisons, et même combien de fois il nous semble nous trouver devant le "déjà vu", tout en sachant qu'il s'agit d'une fausse perception.

Les Journées se terminèrent par une Table Ronde sur la violence en Euskal Herria, de nos jours, dans laquelle les différents points de vue, très divers, aussi bien en ce qui concerne les aspects traités que la pluralité politique des exposés des participants, supposèrent une contribution très intéressante de par l'originalité de certaines approches, comme il est reflété dans la reproduction des interventions qui occupent la dernière partie du livre. Je désire terminer par ces lignes en remerciant tous les participants pour l'intérêt qu'ils ont démontré, les féliciter pour le haut niveau de leurs travaux et leur souhaiter que ce numéro de *Vasconia* constitue une contribution à la connaissance de notre histoire et à la compréhension de notre Pays.

Lola Valverde Lamsfus
*Vice-présidente de Eusko Ikaskuntza (Gipuzkoa)*